



Un mendigo, junto a una oficina bancaria de Roma. | AP

Mikel Telleria

Hedabideen izaeraz galdezka

ARGAZKI-OINAK (2014)

Neurri aldakorak



Xabier Gantzarain

www.argia.eus/artea

XX. mendeko arteak irudikapenaren txakur ametsa hankaz gora bota zuen era berean, kazetaritzaren objektibotasuna baino, hedabideen ustezko funtzioa bera auzitan jartzen ari da aspaldian Mikel Telleria Aguado (Tolosa, 1975eko uztailaren 20a), errealitatea eta hedabideak aurrez aurre jarriz, ikuslea kolpean harrapatzen duten lan garbi eta zuzenekin.

Prensa idatzia du gehienetan langai, edizio digitala sarri, seguru asko, bere adineko gizon eta emakume askok bezala, horixe izango duelako “informazio iturri” ohikoena. Artistaren begirada arrotzasanak hartua du ordea, ez da ba-

karrik, ez da batez ere hedabideek zer kontatzen duten, baizik eta nola, batez ere nola.

Hedabideen ezaugarriak baliatzen ditu bere lanetan: serieka egiten du lana normalean, esate baterako, eta batzuetan serie horiek egunero elikatzen ditu, *Klikak* seriean bezala; 2011n hasita, prentsa idatziaren edizio digitaletan klikatzen zituen goiburuak gordetzen joan zen, egun bakoitzekoak orrialde batean. Goiburuz betetako orrialde hori neurri handian inprimatu eta galeriako paretan jarri zuen behin, egunero berrituz egunean eguneko titularrekin. Urtebetekoak gordetzen

zituen urtekari moduko bat ere egin zuen ordea.

Behin eta berriz jorratu duen gaia da kazetaritzan (eta errealitatearen ustezko irudikapen horretan) argazkiak betetzen duen paperarena. *Izurrak* seriean prentsatik argazkiak hartu eta toleste simple batekin irudiak erabat aldatu zituen; *Paisaiak* seriean mendian egindako argazkien ganean prentsatik hartutako goiburuak paratu zituen, batak bestearekin inongo loturarik ez zutenak; *Argazki oinak* seriean berriz bere galdera muturre-raino eraman zuen, eta argazkia ezabatu: desagertu egin da argazkia eta oinak eusten dio irudiari, hitzak egiten du. ■